

# ARGIA: 90 urte eta aurrera begira

- Hasiara: 1997-2005
- Web 2.0 aroa: 2005-2006
- Multimedia aroa: 2006-2007tik aurrera
- Prospektiba: Beste 90 urte betetzeko landu beharreko gakoak

## Hasierra: 1997-2005

- Zertarako Internet?
- Nola egiten zen lan?
- Nolako edukiak?

## 1997-2005: Zertarako Internet?

- Mundu zabalera irekitako leiho bat
- Norberaren aurkezpena egiteko baliagarria. Zer egiten dugu? Ezagutu gaitzazu
- Ezagunak bilakatzeko beharrezkoa zen Interneten egotea
- Komunikazio molde berrietara egokitzeko, trenera igo behar zen

## 1997-2005: Nola egiten zen lan?

- Webgunearen zatirik handiena HTML estatikoetan oinarritzen zen, taulak manipulatzeko erabiltzen zuten
- Euskal Kulturaren Hari@ eta astekariaren kasuan Kapsula, Adur enpresak garatutako teknologia propioa erabiltzen zuten

## 1997-2005: Nolako edukiak?

- Erakusleiho kontzeptua: papereko edukiak Internetera (Astekaria, Gure Mendea, Euskal Herriko Gida...).
- Euskal Kulturaren Hari@: Interneteko produktu izarra. Aurten 10 urte
- Parte-hartzearen aitzindaria: Mantxut

## MANTXUT?

- SARRERA
- ERRAMOLDEAK
- FORUA
- SMS
- POSTALAK
- LOITURAK
- DENDA ★



## FORUA

○ ASITEKO LOKUZIOA ○

**Txakurra garitan bezala ibili**  
Bakarka ibili, egon  
(ikus lokuzioa)

**Ba al dakizu hori bera esateko besterik?**

👉 **Eta hori, justu, esateko beste modurik ez badakizu, ez du inporta; jakingo dituzu beste batzuk, eta horiexek bidal ditzakezu.**

Bidali zure lokuzioa [mantxut@argia.com](mailto:mantxut@argia.com)

## ○ ZUEN EKARPENAK ○

- ▶▶ **Izebetara joan**  
Putetxera joan (Goizueta)
- ▶▶ **Orea bildu, ore egina egon**  
Mozkortu, mozkortua egon (Goizueta)
- ▶▶ **Beran bolan ibili**  
Bakarrik ibili, egon
- ▶▶ **Itzalik gabe (egon/ibili)**  
Denek alde egin eta bakarrik gelditu
- ▶▶ **Txirri-belarriak ditut**  
Bero handia dut (Tolosa)
- ▶▶ **Niriñili**  
Hainitz arrenkuratzen bainan guti pentsatzen duen pertsona bati erraten zaiona (Ziburu)
- ▶▶ **Kakela egitea**  
Harroarena egitea, oilar bat bezala ibiltzea (Ziburu)
- ▶▶ **Gasna bat**  
Gizon lodi edo koipetsu bat (Ziburu)
- ▶▶ **Tzit bat**  
Gizon/mutil ttiki eta oso mehe bat (Ziburu)
- ▶▶ **Tarttalet bat**  
Emazte/neska oso mehe bat (Ziburu)
- ▶▶ **Eskai**  
Mehe, makal, indargabe (Ziburu)
- ▶▶ **Pingaitz bat**  
Pertsona antzekaitza edo galduta edo dena alderantziz egiten duena (Ziburu)
- ▶▶ **Aluki**  
Pertsona oso gaizto bat (es: cabrón; fr: connard) (Ziburu)
- ▶▶ **Gaiz**  
Iñozo, ergela, abiadura ttikiko burmuina (Ziburu)
- ▶▶ **Uhaingi**  
Ezatsegín edo izigarritzko zerbaitetaz ohartzean erraten dena (es: joder/hostia; fr: enfoiré/putain) (Ziburu)
- ▶▶ **Dia!**  
Harrigarri, ezohizko edo ezuzteko zerbaitetaz ohartzean erraten dena (Ziburu)
- ▶▶ **Edatetxea**  
Hainitz edaten den taberna bat (Ziburu)
- ▶▶ **Zakilote**  
Alua (mutilei)
- ▶▶ **Etixerat!**

## Web 2.0 aroa: 2005-2006

- Zertarako Internet?
- Nola egiten zen lan?

## 2005-2006: Zertarako Internet?

- Gure informazioa ezagutarazteko bai, baina baita besteena eskuratzeko, irakurleekin elkarreragiteko eta zabalkunde bide berriak elikatzeko
- 2005ean diseinu aldaketa: RSS, Iruzkinak, blogak, Zabaldu...

## 2005-2006: Nola egiten zen lan?

- PHP eta MySQL sistema batera pasa ginen
- Diseinu aldetik HTML estatikoetatik XHTMLra pasa ginen eta CSS estilo orrietara. Edukiak eta diseinua askoz gehiago bereizi genituen. Horrek informatikariekiko menpekotasun handiagoa ekarri zigun.

# Multimedia aroa: 2006-2007tik aurrera

- Zertarako Internet?
- Nola egiten da lan multimedia produktuak sareratzeko?

# Multimedia aroa: Zertarako Internet?

- Komunikabide idatzi batek testua, soinua eta irudia batu zitzakeela ikusi genuen eta bideoak lantzen hasi ginen.
- Lehen esperimientua: Amets Arzallusek eta Txomin Txuekak Boliviara egindako bidaiak.

# tawantinsuyu espedizioa



- [Zer da hau?](#)
- [Bolivia egunez egun](#)
- [Bideoak](#)
- [Argazkiak](#)
- [Elkarrizketa eta erreportaje idatziak](#)
- [Loturak](#)

bilaketa

Bilaketa

Dena

&gt;Bilatu

[Hasiara](#) > [bideoak](#)

## **bideoak**



Photo © Txomin Txueka / ARGIA Magazine

### *Zapata garbitzaileak*

Badira batzuk, bizitzak hala beharturik, oinez ibiltzen hasi baino lehen korrika egiten ikasten dutenak. Eta badira beste batzuk, halaberharrez, oinetan zapatarik jantzi baino lehen, zapatak garbitzen ikasten dutenak. Halakoz josia dago La Paz, eta edozein kale kantoitan aurkituko dituzu, zure zain, txanpon baten truke, zapatari distira emateko.



 Bideoa ikusi  erantzunak (1)  erantzun



Photo © Txomin Txueka / ARGIA Magazine

### *Artista bera arte*

Evo Moralesen kokazko opariak bere eskuetatik ateratzen direlako egin da ezaguna Gaston Ugalde. Eta eskuez lagunduta hitz egiten duenean ere, badirudi, hitz bakoitza tailatzen aritzen dela, hemendik xorroxten, handik luxatzen, hitz bakoitzari bere forma eman nahian, bere lekua, elkarren urraduran, arte hotsa izan dezaten. Osoan da Gaston arte; bere lanez, bere hitzez, eta bere formaz. Artearen pertsonifikazioa dirudi.





 Bideoa ikusi  erantzun




Photo © Txomin Txueka / ARGIA Magazine

### *Wanted*


Ernesto Solla Martin. 35 urte, Bartzelonan jaioa. Bizar narras bat du eta ile horia. Argala. Oso argala. HIESa du. Ez du heriotzarik bizkar gainean, baina laster bat izan lezake. Berea. 2006ko uztailaren 29an ikusi zuten azken aldiz, La Pazeko San Pedro kartzelan, ziega gabeen sekzioan, bere gaitzarentzat medikaziorik gabe. Niki beltz zikin bat zeraman soinean, eta zulatutako galtza bakero batzuk. Bila joan, eta Espainiara estraditatzten duenari ez zaio diru saririk emango. Masaileko eder bat baizik, lehenago egin ez izanagatik.

 Bideoa ikusi  erantzunak (2)  erantzun

# Multimedia aroa: Nola egiten da lan?



# Multimedia aroa: Nola egiten da lan



## Multimedia



### Anjel Lertxundi: Eremu urriko hizkuntza batetik: idazle baten hausnarketa

"Eremu urriko hizkuntza batetik: idazle baten hausnarketa" hitzaldia eskaini zuen Anjel Lertxundik apirilaren 24an Bilboko Guggenheim museoan. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna jardunaldien programako parte izan zen.



## Babeslea



### Multimedia Bilaketa

- Bideoak     Galeriak     Diaporamak  
 Ekitaldiak     Film laburrak     Guztiak

**Bilaketa aurreratua**

Gomendatuak    **Ikusienak**



#### 90 urte ARGIAK

1919an kaputxinoek sortu zuten Zeruko Argia, egungo ARGIA izatera nola heldu den laburbildu nahi...



#### Loretik upelera

Sagardoa nola egin azaldu digu Larre Gain sagardotegiko Joxe Lasartek.



#### Arrisku kazetaritza

Kurduerazko egunkari bakarra dago Turkiako kioskoetan. Bertako kazetariak abxiloketa, tortura eta...



#### Xabier Lete, poema errezitaldia Iruñean

Xabier Letek Egunsentiaren Esku Izoztuak liburu berriko zenbait poema errezitatu zituen ekitaldi...



#### Tex Norton

Tex Nortonek 43 urte besterik ez dituen arren, NASA utzi eta erretiratzea erabaki du.

**Tex Norton:** Jon Gartziaandia  
**Gidoia eta zuzendaritza:** Jon...



#### Musika

**Zuzendaria eta Gidoia:** Asier Urbietia  
**Zuzendari laguntzailea:** Telmo Esnal  
**Aktoreak:** Nikola Zalduqui eta Ion...

## Beste 90 urte betetzeko landu beharreko gakoak

- **Paperaren krisia:** Papereko edukien kalitatea ahaztu gabe, komunikabide baten etorkizuna ez hipotekatzeko, paperetik at dauden bideak esperimentatu behar ditugu.
- **Komunitatea sortzea:** sare sozialak komunikabideetan integratu behar dira

## Beste 90 urte betetzeko landu beharreko gakoak

- **Geolokalizazioa:** web 3.0 aroa badator eta komunikabideek beren informazioekin batera geolokalizazioa eskaino beharko dute.
- **Multimedia:** Gero eta errazagoa izango da edonork bere bideoak emititzea eta komunikabide idatziek ere multimedian bere eskaintza egin behar dute.

## Beste 90 urte betetzeko landu beharreko gakoak

- **Posizionamendu ona:** Gure irakurlea oso fidela da, %80tik gora helbide zuzen edo gogokoetatik iristen da, baina hori ez da oso arrunta. Jende gehiena bilatzaileen bidez iristen da webgune jakinetara.

## Beste 90 urte betetzeko landu beharreko gakoak

- **Lan talde indartsua eta profesionala:** ez kopuruz, baizik eta gogoz
- **Sinestea:** Egiten dugunean sinesten badugu, aurrera aterako gara

## Beste 90 urte betetzeko landu beharreko gakoak

- **Egunerokotasuna indartzea:** Egunero zerbait berria eskaini behar da. Gure hurrengo apustua.... Erredakzio-mahaia, ARGIAko kazetarien bloga